

Urte bete eskas egin zuen Araba-ko Faido-n apez, R. M. Azkue-ri Bilbora ekartzea bururatu baitzitzaion berarekin edukitzeko. Lendabizi Ave Maria Monjekin kapellau egon zan eta gero urte askotan Jesus-en Zerbitzariekin Jaundone Jakue katedralera bialdu zuten arte. Il arte egon da azkenengo eliza onetan. R. M. Azkue-k bere sekretario bezela eduki zuen eta aren testamentu kontuak ere bere gain gelditu ziran. 1957 urteko EUSKERA-n ikusi diteke R. M. Azkue-ren gorazarrean egin zuen itzaldia.

AITA I. MANZISIDOR, S. J. (1907-1961)

Azkoitia'n jaió (1907-IV-8) eta Loyola'n il (1961-X-16). Ikasten Orduña'n asi zan (1918), Comillas'en jarraitu, emen Doctor in Philosophia irtenik (1927) eta jesuita-karrera Salamanca'n asi (1927) ta Marneffe'n (Belgique) bukatú (1938).

Langille porrokatua izan zan bere eriotz uneraño, gaixoaldian ere lumari jaregiteke. Bere prediku, liburu, artikulu ta lan guztiak euskeraz eman zizkigun. Erlijio-gaia besterik ez du erabilli oietan denetan. Hagiographia baizik ez, esan diteke uts aundirik gabe.

Bizitzak: Garate, Jesukristo, Gure Patroi Aundia, Santu Bizitzak (irukoitza azkenengo au). Gai ortatik kanpo, Otoitz-Bidea aren liburu bakarra, eta emen ere hagiographiak baditu bere saillak. "Euskal-Erri fede-erri" zan aren jo-muga.

Egiteko ontan muga garbiak ipiñi zizkion bere buruari. "Nere elburua literatura ezdala (jakin zazu); deunen bizitza errex eta al dedan gozoena eta errikoiena azaltzea baizik. Ta ori onbiderako... bultzada irakurleak izan dezan".

Elburu onek agintzen dio beste gañerakoetan ere. "Errex-goxo-erriko": iru mugarriok izkuntza ta idaz-tankera ta gaia bera mugatzen diote, uts aundirik egiteke. Erri-euskera buru-belarri zaitu zuan Mantxik, iñoizko edo iñungo modu edo modara bigundu gabe. Etxetik zuan euskera ugari eta pitxi bat. Izlari oso atsegiña zala jakiniñik, doai oiek bere idazkiai erasten arduratsu ibili zan. Bere beingoko etorriari itzal aundia zion. Oso gutxi esku-pasatzen zuan bein orrela idatzitakoa. Ortik noski aren liburuak duten naturalidade, erri xumearen ain gustoko, ori.

Aren idazlanak. danera, irubat milla orri joko dute. Euskaltzain urgazlea zan (1958-V-29). Ongi, beraz, Euskaltzaindiak bere EUSKERA-n egiten dion aipu au. A. Iñixio Mari Manzisidor, G. B.